




BARREN
TOKIKOM

Sustraien bila



**ORAIN AZAROAREN
24a ARTE!**

50€ko EROSKETA 40 €ren TRUKE

Salmenta, Merkatu Plazan, Elgoibarren erroldatuta daudenentzat
Bonu bat NAN edo erroldatze bakoitzeko
Gutxienez, 25 €ko erosketa egin behar da.





AZAROAREN 10etik 26ra

BELAUSTEGI JATETXEA (Elgoibar) • 943 74 31 02 • www.belaustegi.com
 Etoko aperitibo / Txinguruzko potxoa Getariako antzekin / Ondarraoko zapo txiki barazki-olio
 Irjituarekin / Baserriko pularda panadera-patalekin eta ondo saietuekin / Trufa-larta Mendaroko
 txokolatarekin eta mungozko izozkirekin

URGAIN JATETXEA (Deba) • 943 19 11 01 • www.urgain.net
 Krokatak, ondozkoak eta Kantauriko arrainarekin / Pemetriko-entsalada apela / Kantauriko arrainaren Arma
 / Zapoa edo barbarina panadera-patalekin edo Euskolabel entrolota / Donare baserriko sagaren tarta
 kanelarekin eta Mendaroko txokolatazko mousserekin

AZITAIN ERRETEGIA (Eibar) • 943 12 18 54 • www.asador-azitain.com
 Debabarreneko garaiko barazkien menestra / Bakalaoa piperadarekin / Euskolabel azpituna homipalarekin
 / Pastineta Mendaroko txokolatarekin

LASTURKO TABERNA (Itziar) • 943 19 90 33 • www.lastur.eus
 Txito Lastur arra bakalao-entsaladarekin / Kantauriko legatza pikillo-piperaren sailbarekin eta Getariako
 Txakolineren (JD) kopa batekin / Euskolabel oliako arra / Etoko gazta-tarta

MENDIOLA JATETXEA (Ermua) • 846 08 00 86
 Melabiko odolkiare kumiskario baserriko sagarekin eta Goleneta gaztazko kremarekin / Murrilako
 kontserbako hegazuaren entsalada piperrinezko azpitin-olioarekin eta pipar errekin / Kantauriko legatza
 Arabako patalen gainean eta Sagamiñe bakail-saltsarekin / Aramalo haraneko moxal-masal errogoski
 patata-krema trufiarekin / Mendaroko txokolata beltz eta zuriko esteraerdia mojito-sorbetearekin

KANALA JATETXEA (Itziar) • 943 19 90 35 • www.hotelkanala.com
 Debabarreneko kalabaza-krema / Geoparkiko barazki eta arrainekin egindako arrai-zopa / Flyscheko
 legatzaren kokolea egur-katzezko bangarretan aneta / Euskolabel txahal-medialola txakal gaztazko (JD)
 kremarekin / Mendaroko txokolatazko tarta banarekin

CALBETON JATETXEA (Deba) • 943 19 19 70 • www.calbetonjatetxea.es
 Ahuntz-gaztaren, intxauren eta fruten entsalada / Garaiako pemetrikoz betetako omi-mamiak / Euskolabel
 txahale bere saietan garaiako barazkiekin / Gaztaina-moussesa Mendaroko txokolatarekin eta errega-sagarezko
 sorbetearekin

Erreserbatu zure
 Tripontziak menua!



EMAN ZURE #TRIPONTZIAK ESPERIENTZIAREN BERRI SARE
 SOZIALETAN ETA IRABAZI SARI BIKAINAK!

www.debabarrenaturismo.com



BASQUE
 COUNTRY



Debegesa



deba
 BARRENA

JOSTAILU AUKERAKETA: ZER HARTU KONTUAN? Azaroaren 23tik 25era

FAMILIENTZAKO JOSTAILU ERAKUSKETA

KULTUR ETXEKO SOTOAN

10 urtetik beherakoek heldu batek lagunduta etorri beharko dute.

AZAROAREN 23an, EGUENA, 17:00etatik 19:30era
AZAROAREN 24an, BARIKAKUA, 17:00etatik 19:00etara
AZAROAREN 25ean, ZAPATUA, 10:00etatik 12:00etara

AZAROAREN 24an, 21:00etatik 00:00etara
PINTXO-JOLAS DASTAKETA
 Nerabe eta gazte
 (adinez edota arimaz) guztientzat

GAZTETXEAN doan

Pintxo jana + karta eta mahai jolasen saio dinamizatua

ANIMA ZAITEZ!!



60
 JOSTAILU
 BANO GHIAGO

AZALPEN
 PERTSONALIZATUAK

JOLAS TXOKOA
 OBA DDAKTOKOA



EDURNE IZAGIRRE

Psikologoa



Herri identitatea

meekiko bizipen eta esperientzia komunen kontzientzia hartuaz. Eta munduan bestaldeko emakume bat entzutean, ni neu ikusten naiz bere bizipenetan, neure identitate berean islatzen da.

Gauza bitxi bat gertatzen zait azkenaldian: sarritan euskaldun izaerak beste kultura zapaldu batzuetako pertsonetatik gertuago sentiarazten nau neure herrikideetatik baino.

Kilometrotara, mendira, bertso saio batera edo Durangoko azokara joan eta nire herriaren arnasketarekin bat egiten dut, oso sentipen berezia da. Baina han anaia edo ahizpatzat ditudanak ondoren ikusten ditut semeari arabieraz hitz egiten dion emakumeari mesfidati begiratzen, gizartean ditugun

arazo guztien erruduntzat etorkinak hartzen, tradizioaren izenean bazterketa babesten...

Eraso etengabe dagoen herri batean hazi naiz, ulertzen dut geurea mantentzeko grina, baina ez dezagun gure izaera abegikor eta eskuzabala bidean galdu. Erasoa hau bizi izan dutenak neba-arrebak ditugu, ez etsaiak. Etsaia mozturorik sartzen da gure etxeetara, festa itxuran herri giroa eta herri eredia aldatuz, eta pozik zabalitzen diogu atea goxokiz mozturoriko pozoari.

Hainbeste maite dugun hizkuntza kultura baten islada da, bizitzeko eta izateko modu batena. Euskaraz bizi nahi dut, baina batez ere komunitate izaera mantentzen duen Euskal Herri batean bizi nahi dut.

Ez noa kataluniaz hitz egitera; horretan ari dira beste batzuk. Identitate kontzeptuari bueltaka nabil azkenaldian, zein elementuk sortzen dute Nia? Neu naizena islatzen duena, bizitzan zehar jasotako erretazoekin osaturiko zapia. Babesa ematen dit, eta baita izate eta leku bat besteen artean eta besteekin batera.

Ni neu ez naiz bakarrik; emakume naizela jakitera iritsi naiz beste emaku-

“Gauza bitxi bat gertatzen zait azkenaldian: sarritan euskaldun izaerak beste kultura zapaldu batzuetako pertsonetatik gertuago sentiarazten nau neure herrikideetatik baino”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euskal Leizorren Erakundeak

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zaloe Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirre-azaldegi **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► SEBAS ETXERA

Sebas Etxanizek, Villabonako (Asturias) espetxean dagoen preso politiko elgoibartarrak, 74 urte beteko ditu azaroaren 27an. 15 urte jarraian egingo ditu espetxean preso. Lehenago ere beste hiru urte egin zituen espetxean. Espainiako legearen arabera, adin horretako presoek kalean beharko lukete, baina ez da hala korik gertatzen. Espainiako Gobernuak beti esan izan du presoak izan direla bide legala erabiltzen ez dutenak dagozkien onurak eskatzeko orduan. Presoen kolektiboak onartu du legeak eskatzen dituen baldintzak betetzea. Beraz, ez dago aitzakirik. Lege arrunta aplikatzea eskatzen dugu, lehenbailehen.

Gogoratu nahi dugu, Elgoibarren hainbat mobilizazioz gain, Udaltzatik onartu duela Sebasen etxeratzea, 500 herritarrek eskatutako mozio batean. Inolako erantzunik ez da etorri Madrildik, ordea. Baina ezin dugu amore eman.

Herritarren babesak eta aktibazioak gauza asko lor ditzake. Hor dago ETAREN armagabetzea. Espainiako Gobernuak ez zuen nahi ETA armagabetzerik; ETA garaitzea nahi zuen, publikoki garaile moduan gelditzeko. Herritarren inplikazioak lortu zuen armagabetzea gertatzea. Orain herritarren aktibazioak lortu behar du presoak askatzea, ziklo zaharra behingoz bukatzeko eta berri batean murgiltzeko. Testuinguru honetan, elkarretaratze handi bat nahiko genuke egin azaroaren 24an, Kalegoen plazan, 20:00etan. Denon inplikazioa beharrezkoa da, eta

asko eskertuko genuke zu ere han egotea.

Sare Elgoibar

► INFORMAZIO PANELAK

2016ko apirilaren 20an Ane Beitia alkatearekin eta losu Arraiz Hirigintza zinegotziarekin batu nintzen udaltxean, gure herriari eragiten dioten hainbat gairen inguruan hitz egiteko, besteak beste garraio publikoaren gaiaz. Gai horren inguruan esan nien otsailean Marisol Garmendia Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketarako Gipuzkoako diputatuarekin batu nintzela. Batzar hartan jakinarazi nion Garmendiari ez nengoela ados MUGI sistemaren zenbait konturekin eta kexa ere aurkeztu nion Elgoibarko autobus geltokietan Informazio panel elektronikorik ez dagoelako. Nire ustez, panel horiek jartzeak asko hobetuko luke garraio-zerbitzu hori. Hilabete geroago, Ane Beitia alkateari 2016ko martxoko datarekin bidali zion gutunaren kopia bidali zidan begirune handiz Garmendia andreak. Gutun horretan Gipuzkoako Foru Aldundiak azken belaunaldiko informazio panel elektronikoak eskaini zizkion gure alkateari, Elgoibarko geltokietan jartzeko.

Bada, gai horren inguruan, eskaintza hori onartzeko asmorik ba ote zuten galdetu nien aipatutako gure herriko bi arduradunei, eta baietz erantzun zidaten, 2016ko udarako jarri asmo zituztela. Baina ez zituzten jarri. 2016ko

urriaren 24an berriz batu nintzen losu Arraiz jaunarekin, horren zergatia jakin asmoz. Berak esan zidan Udalak zazpi panel eskatu zituztela Aldundiari zazpi geltokietan jartzeko, baina Aldundiak bi baino ez zituztela ematen. Gutxienez bi horiek jartzeko proposatu nion, bata Txankakuan eta bestea King-Kongen, eta berak erantzun zidan 2017ko lehenengo hilabeteetarako izango zituztela gainerako bostak ere eta orduan jarriko zituztela guztiak, era horretan obra-kostua merkatu aldera.

Baina azaroaren erdira iritsi gara eta panel bakar bat ere ez dute jarri oraindik. Zein da horren arrazoia? Hori da erantzun beharko luketen galdera.

Juan Angel Garcia Calleja

► IPARRAGALDUBAIK

Ibon Iparragirre ondarroarra oso larri dago, gaixo, Alcala Mecoko espetxean. Berandu baino lehen, Ibon etxera ekartzeko eskatu nahi dugu, hirugarren gradua aplikatzeko baldintzak betetzen dituelako, eta giza eskubidez dagokiolako. Horregatik, Karakateko igoera baino 5 minutu lehenago Ibonen aldeko argazkia egingo dugu Foruen Plazan. Era berean, korrikalariei dei egin nahi diegu Karakateko igoeran Ibonen aldeko kamisetarekin parte har dezaten. Iparra galdu baik, Ibon etxea!

A. Lendinez, A. Urteaga, A. Etxeberria,

I. Campos, A. Munarriz, J. Zabala,

I. Laskurain, A. Irureta, G. Sampedro,

A. Arbulu. Elgoibarko Sarerekin elkarlanean

ELGOIBARKO MERKATARIONTZAKO OHARRA

LAGUNDUKO AL DIGUZU ELGOIBARKO IZARRAREN TONBOLA OSATZEN?

Aurreko lau urteetan TONBOLAK izan duen estimazioak bultzatuta, aurten ere abenduaren 24an Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu Kalegoen plazan. Tonbola opariz janzteko, baina, zure laguntza behar dugu. Trukean BARRENen eta egunean bertan ere, emango dugu zure eskuzabalasunaren berri. Opariren bat emateko prest zaudetenekok, deitu 943 741 626 telefono zenbakira edo idatzi elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus posta elektronikora abenduaren 1a baino lehen.



Eskerrik asko!



Abenduaren 1ean eta 2an Elgoibarren egingo duten elikagai bilketarako boluntarioak behar dira

Gipuzkoako Elikagaien Bankuak egingo duen Elikagai Bilketa Erraldoiarekin bat egingo dute Elgoibarko Gizarteratze Mahaiak eta Udalak aurten ere. Abenduaren 1ean eta 2an -barixakua eta zapatua- egingo dute bilketa, eta boluntarioak behar dituzte. Janari bilketa 9:00etatik 21:30era egingo dute, eta ordutegi jarrai hori betetzeko lagunak behar dituzte. Interesatuak Ongizate Sailera bertaratu edo 943 741 008 telefonora deitu behar dute. Txaleko bereizgarriak jantzita, merkataritza-gunean sartzen diren herritarrei bonu bat edo janari bat betzeko poltsa bat eskaintzea izango da boluntarioen zeregina. Adingabeek ere parte har dezakete bilketan, "balioetan hezteko" helburuarekin.

Elgoibarren jasotzen diren elikagaiak Gipuzkoako Elikagai Bankuak Bergaran duen egoitzara eramango dituzte, eta handik banatuko dituzte beharra duten familien artean. Elgoibarko Gizarteratze Mahaiak jakinarazi du gero eta familia gehiagok jotzen du-



tela elikagaien bankura. 2016an 12.524 Kg elikagai bildu zituzten eta 2.583 euro lortu zituzten bonotan. Gizarteratze Mahaiak herritarren kolaborazioa eskatu du.

25 euroan menu landuak eskainiko dituzte jatetxeek, Tripontziak ekimenaren barruan



Debabarreneko Klub Gastronomikoko kide diren zazpi jatetxek, tartean Elgoibarko Belaustegik, menu landuak eskainiko dituzte 25 euroan (edaria, kafea eta BEZa barne), azaroaren 26ra bitartean, Tripontziak ekimen gastronomikoaren barruan. Aurtengo ekimenarekin bat egin duten jatetxeak honako hauek dira: Elgoibarko Belaustegi Jatetxea, Itziarko Kanala Jatetxea, Debako Urgain eta Calbeton Jatetxeak, Lasturko Taberna, Eibarko Azitain Erretegia eta Ermuko Mendiola Jatetxea.

Led motako argiak jarri dituzte Urazandi auzoko 120 argi puntutan

Argi zaharkituak kendu eta LED teknologiadunak jarri dituzte Urazandi, Kalamua, eta Morkaiku kaleetan zein King Kong zubiaren. Guztira 120 argi puntu berri dituzte. Urazandian LED argiak jartzeko lanok, 2017-2020 aldirako eraginkortasun energetikoaren plan estrategikoaren barruan gauzatu ditu Udalak. Udal agintarien kalkuluen arabera, argiztapen sistema berriek energia-kontsumoan gutxi gorabehera %66ko aurrezteak ekarriko dute. Halaber, CO2 isuriak 21 tona inguruan murriztuko dira. Urazandi auzoko argiteria berritzeko 55.000 euroko inbertsioa egin du Udalak.

Azaroaren 24ra arte erosi daitezke Txankakuaren bonoak

Txankakua merkataritza elkartek astebetetz luza du erosi daren bonoak erosteko epea. Beraz, azaroaren 24ra arte erosi ahal izango dira, Merkatu Plazan, beti ere, aurretik agortzen ez badira. 40 euro ordainduta, 50 euroko erosketa bonoa eskuratu daiteke. Herritar bakoitzak bono bakarra erosi dezake, eta gehienez ere 100 eurora arteko bonoak metatu daitezke. Bonoa 25 euroko bi zatitan banatuta dago, beraz, gutxienez 25 euroko erosketa egin behar da. Kontsumoa bultzatzeko eta herritar bakoitzaren sustatzeko kanpaina da hau.

Emakume adinekoek pairatzen duten indarkeria matxista bistaratzeko jardunaldiak antolatu ditu Elgoibarko Udalak hilaren 22rako

Emakumeak, zahartzaroa eta indarkeria matxistak: ikusten ez dena ikustaraztea izeneko jardunaldia antolatu dute Elgoibarko Udaleko Berdintasun eta Ongizate sailek azaroaren 22rako, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin. Ikerketa ugari azaleratu dute adin handiko emakumeek dutela babes gutxien genero indarkeriaren aurrean, batetik zahartzaroaren gaineko aurreiritziengatik, eta bestetik, indarkeria hori egiturazko beste indarkeria batzuekin gurutzatzen delako. Izan ere, pobrezia-maila bera nabarmen handiagoa da andre adinekoen artean. Era berean, adituek ohartarazi dute biktimek eurek ere zailtasunak izaten dituztela sarri biktima kontzientzia hartzeko, besteak beste oso patroiz matxistetan hezi direlako. Horrek guztiak ikusezin egiten dute indarkeria hori, eta emakume horiek tratatzen dituzten profesionalak eurek ere zailtasunak izaten dituzte biktima horiei behar duten laguntza eskaintzeko.

Egun osoko egitaraua osatu dute azaroaren 22rako. Goizeko saioa (9:15-13:30) profesionaleri zuzenduta dago berez, baina interesa duen orok dauka joateko aukera. Hori bai, lekua mugatua denez, parte hartu nahi dutenek alde aurretik eman behar dute izena, ondorengo estekan: <http://goo.gl/oPkVzp>. Arratsaldeko saioak gehiago dira he-



rritarrei begira antolatutakoak (18:00etatik atzera), eta Udalak parte hartzera deitu dituzte herritarrak. Inazio Bereziartua Musika Eskolako auditoriumean egingo dira saioak eta Marisa Rebolledo Agora taldeko koordinatzaileak, Jesus Goienetxea gizarte hezitzaileak eta Mentxu Hernando Agintzari SCISeko kideak arituko dira hizlarilanean.

Bakeaz eta bizikidetzaz gogoeta egiteko saioa Elgoibarren, azaroaren 20an

Elkarrizketarako eta elkarri entzuteko espazio publiko bat sortu nahi luke Elgoibarko Bizikidetzak Taldeak, eta bizikidetzak hobetzeko pausoak emateko asmoz, gogoeta-saio bat antolatu dute azaroaren 20rako. *Elgoibarren bizikidetzak lantzen. Nola nahiko zenuke eraiki bakea eta bizikidetzak Elgoibarren?* galderari erantzuten saiatuko dira, talde txikitik batuta. Jardunaldian parte hartzen dutenek proposatutako ideia eta ekarpenekin txostena osatuko dute gero, eta dokumentu hori udal ordezkariari ere bidaliko diete, Udalak antolatzen dituen ekimenetan kontuan har ditzaten. Kultur Etxeko Sotoan izango da bilkura, 18:30ean. Pare bat orduko gogoeta-saioa izango dela aurreratu dute antolatzaileek, eta parte hartzera deitu dituzte herritar guztiak. Izena emateko. elgoibarbizikidetzak@gmail.com / 943 251 005.

Mugikortasun iraunkorraren astea izango da datorren astea Elgoibarren

Elgoibarko Udalak mugikortasun iraunkorraren astea izendatu du azaroaren 20tik 25erakoa. Ohi legez, kasko historikoa itxita egongo da motordun ibilgailuentzat. Horrez gain, kaleak "erakargari" egin nahi dituzte oinezkoentzat eta kaleak eta saltoki-atariak apaintzera animatu dituzte dendariak. Era berean, hainbat jarduerak antolatu dituzte aste horretarako. 60+ taldekoekin hainbat ibilaldi egingo dituzte herrian, eta Kalebarren plazan aisialdirako "berdegune bat" sortuko dute. Oin Alai egitasmokoek egiten duten ibilbidea ere aldatuko dute. Kalebarrenetik San Frantzisko kaletik joan beharrean Pedro Migel Urruzuno kaletik joango dira, auto gidariei kale horretan 20 kilometro orduko abiadan joan behar direla gogorarazteko, eta HH5ek heziketa tailerra ere jasoko dute. Zapatuan, berriz, bigarren eskuko merkaturak jarriko dute Lekuederren, eta herriko eskola-umeek etxean egoera onean dituzten jostailuak eta abar salduko dituzte. Parrokiako Misio taldeak, bestalde, bidezko merkataritzako produktuak salduko ditu, eta Kalegoen plazan patinetan ibiltzeko ordubeteko bi sario berezi egingo dira: 10:30ean eta 12:15ean. Parte hartzeko gutxienez 5 urte izan beharko dira eta haurra gai izan beharko da inoren laguntzarik gabe patinetan zutik mantentzeko. Interesatuek idatzi ingurumena2elgoibar.eus helbidera.

Biktimak oroitu zituzten Memoriaren Egunean



Mota askotariko indarkerien biktimak omendu zituen barixakuan, Memoriaren Egunean, Eusko Legebiltzarrak, eta Elgoibarko Udalak bat egin zuen omenaldiarekin. Udalbatzarra osatzen duten alderdietako ordezkariak, eta zenbait herritar Giza Eskubideen Parkean batu ziren 12:00etan, eta bost minutuko elkarretaratze isila egin zuten Gernikako Arbolararen aurrean. Era berean, Elgoibarko alkate Ane Beitiak lora sorta bat laga zuen zuhaitzaren onietan, Miren Arrate Arrieta eta Nerea Alustiza zinegotzien laguntzaz.

Odola ateratzeko egun bakar batean 75 odol emaile baino gehiago lortzeko erronka gainditu nahi dute Mendaron

1999ko odol ateratze batean 75 lagunek eman zuten odola Mendaron, eta gaur iluntzerako kopuru hori gainditzeko erronka jarri diete arduradunek herritarrei. Urtean hiru aldiz egiten dituzte odol ateratzeak Mendaron, eta gaurkoan, ohikoan baino ordubete gehiago izango dute mendarorrek odola emateko, 17:30etik 20:30era, hain zuzen ere. Interesatuek Mendaro Ikastolan eman dezakete odola. Herritar guztien kolaborazioa eskatu dute arduradunek, eta bereziki, jende berria animatu nahi dute odola ematera. Ondoren, indarrak berreskuratzeko eman ohi dituzten jakiez gain, Landa erretegiko kroketak ere emango dizkiete oraingoan odola ematera joaten diren lagunei.

Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

FUB Fernando Urizar Barandiaran
R.P.S.: 32/17
Medikuntzan dotore
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitiko
Psikosomatika
Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
Bailein kalea, 9, 1. ez. (Bilbo)
furizar1@yahoo.com
615 715 404

ECO EIBAR 4D
imagen prenatal
R.P.S. 44340878y
688 800 800
Isasi kalea, 17 - EIBAR
4D ekografietan espezialistak

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA
Terribio Etebarria, 22
Eibar
Tel. 943 108 030
Mug. 677 551 850

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192

RPS 271/12
ainhoa
fisioterapia
Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

aldaz
hortz klinikak
RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

fisio&más
Fisioterapia aurreratua eta Kirol Berregokitzea
Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 933 628
www.fisio-mas.com
RPS 115/18

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

Jeku eder
hortz klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Enperantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida



Pello Arrieta, Javier Elorza eta Ibon Serrano.

Arbasoen bila abizenetan

Elgoibarko Izarraren Kultur-ekintza taldeak 'Gure zuhaitzak landatzen' tailerra antolatu du, zuhaitz genealogikoak egiten ikasteko. Ibon Serrano izan da ekimenaren sustatzailea, eta berak gidatuko du saioa, Pello Arrieta eta Javier Elorza historiagileen laguntzarekin. Zuhaitz genealogikoak egiteko egungo teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak azalduko dituzte ikastaroan, eta hortik aurrera norberak bere etxean lan egiteko aukera izango du. Hilean behin bilduko dira segimendua egiteko, eta gehienez ere, lau hilabeteko epean bukatu da prozesu guztia. Datorren martitzenean, azaroaren 21ean, aurkeztuko dute egitasmoa Kultur Etxean, 19:00etan.

- AINHOA ANDONEGI -

Ibon Serranok 32 abizen ezagutzen zituen, eta 1901. urte ingurura arteko arbasoak ezagutzen zituen, gurasoekin eta etxekeekin hitz eginda, eta konturatu zen 32 abizen horien artean, Serrano, hain justu ere bere lehenengo abizena, zela euskalduna ez zen abizen bakarra. Hor hasi zen guztia. Orain dela pare bat urte izan zen. Serrano abizena nondik zetorkion jakin nahi zuen, eta artxiboetara jo zuen. Aurrez bere aita ere ibilia zen zeregin honetan eta 1812. urte ingururaino iritsi zen. Donostian galdu zuen aitak Serrano abizenaren pista. Ibon aita baino apur bat atzerago iritsi zen, baina bere ikerketen arabera ere, azken Serrano abizenduna Donostian jaio zen. Ibonek, baina, harago joan nahi zuen. Aitak hasitako lanari segida eman ezinik zebilen, eta orduan jo zuen Javier Elorza historiagilearengana. Hari esker aurkitu zuen Euskal Herrira iritsi zen lehen serranotarraren jatorria. Adar hori eta beste hainbat zabaldu zituen Ibon Serranok bere zuhaitz genealogikoan, eta adar batzuk 1700. inguruan amaitzen zaizkio, baina adarren batean 1590. urte inguruko

arbasoetaraino iritsi da, eta 500 abizenetik gora lortu ditu.

Eta ikerkuntza horien artean, sorpresak ere aurkitu ditu. Serrano haren ahaide bat Maria Jesusa Boye Iriarte zen, 1721ean Hondarribian jaiotakoa. Emakume hori ikertzen hasi zen orduan Ibon, eta haren ezkontza agirian aurkitu zuen ezkontza eguneko leku koetako bat garaiko pertsona garrantzitsu bat izan zela: Don Jose de Iturriaga, Compañía Guipuzcoana de Caracas erakundeko arduraduna eta ontzi kapitaina. Maria Jesusaren aita Pedro Boye zen, Antonio Gaztañeta Mutrikuko ontzi eraikitzaile sonatuaren ikasle eta ondorengoa. Bretoia zen Pedro Boye. Pertsonaia interresgarria iruditu zitzaion Iboni, eta asko sakondu zuen gizon honen bizitzan Euskal Herriko, Espainiako eta Frantziako artxiboetan.

Ibonek "izugarri" gozatu du arbasoen bila, eta oraindik dena zirraborro batean badauka ere, dena garbira pasatzen duenean lan txukuna geratuko dela uste du. Esperientzia positiboa izan da, eta hori guztia transmititu nahi die herritarrei, eta bide batez, animatu nahi ditu eurak ere abizenetan arakatzuz, arbasoak bilatzera

Martitzenean aurkeztuko dute 'Gure Zuhaitzak Landatzen' egitasmoa Kultur Etxean, 19:00etatik aurrera. Ikastaroa, aldiz, abenduaren 14an izango da

eta historian sakontzera, teknologia berriak baliatuz.

IKERKETA TRESNAK

Zuhaitz genealogikoak egiteko lehenik eta behin etxekoengana jo behar da. Guraso, aiton-amonek, osaba-izebek edota gainerako senideek uste duguna baino informazio gehiago izaten dute gure arbasoei buruz, eta haiengana jotzea ezinbestekoa da. Horrez gain, artxibo notarialetan ere informazio asko eskuratu daiteke, testamentuetatik bereziki. Beste informazio iturri nagusi bat udaletxeko erregistro zibila da. Espainian 1870ean onartu zuten jaiotzak, heriotzak, ezkontzak, dibortzioak, zigor judizialak eta bestelako hainbat datu erregistratzeko legea, eta 1871n hasi ziren udaletxe gehienetan datu horiek jasotzen. Hala ere, populazio ertain eta handietako herriguneetan 1841ean hasi ziren datu horiek jasotzen, beraz, posible izango litzateke ordura arteko arbasoren bat ere aurkitzea. Hori baino lehenagoko informazioa Elizako artxiboetan dago, beraz, iraganeko datuen bila Eliza Katolikoaren datu-tegira jotzea oso interesgarria izaten da. Parrokiek 1500-1900. urte artean izaten ziren bataio, ezkontza eta heriotzak erregistratzen zituzten, Elizak erabaki zuelako XVI. mendean datu horiek jaso egin behar zirela, kristau egindakoen konstantzia izateko edo ezkontzaren bat ekiditeko. Elizaren datuak, beraz, Trentoko Kontzilioaren (1545-1563) garaitik aurrerakoak dira. Garai hartan Estatuak ere bazituen bere zerrendak eta erroldak, zergak kobratzeko edo gizonak gerrarako hautatzeko. Estatu konfesionala zen orduan, erlijioa derrigorrezkoa zen, eta lankidetzak handia zegoen Eliza eta Estatuaren artean.

Gaur egun zuhaitz genealogikoak egiteko datu asko daude digitalizatuta eta indexatuta, eta herritarren esku daude hainbat tresna interesgarri Interneten. Eusko Jaurlaritzak hainbat artxibo publiko eta pribatu batu ditu Dokuklik izeneko webgunean, eta herritarren eskura jarri ditu <http://dokuklik.snae.org/> helbidean. 1900. urte ingurura arteko Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako gotzaitzegietako erregistro sakramentalak aurkitu daitezke bertan. Bilaketak egiteko hainbat gauza kontuan hartzea komeni da. Esate baterako, abizenak idazteko aukera desberdinak probatu behar dira, izan ere, garai hartan beste grafia eta idazkera molde batzuk ere erabiltzen zituztelako.

Informazio iturri horiek nahikoak izan daitezke norberaren zuhaitz genealogikoa lantzen hasteko, baina horrez gain katastroak, artxibo militarrek, inkisizioarenak, protokoloak eta beste


hainbat kontsultatu daitezke, eta horrez gain, herrialde desberdinetan aktibo dauden genealogisten elkarteak ere lagungarri izan daitezke ikerketa lan horretarako.

AURKEZPENA ETA TAILER PRAKTIKOA

Elgoibarko Izarraren Kulturekintza taldearen ekimena izan da *Gure Zuhaitzak Landatzen* tailerra. Ibon Serrano "oso gustura" geratu da arbasoen bilaketan egin dituen aurkikuntzekin, eta hori guztia etxekoei erakustea opari moduko bat izan da berarentzat. Esperientzia hori herritarrekin konpartitu nahi du, eta herritarrei aukera eskaini nahi die abizenetatik abiatuta, euren arbasoak aurkitzeko, Internet eta teknologia berriak erabiliz. Martitzenean aurkeztuko du egitasmoa, 19:00etan, Kultur Etxeko hitzaldigelan, Javier Elorza eta Pello Arrietarekin batera. Ikastaroa, bestalde, abenduaren 14an izango da, 18:00etatik 20:00etara, Mekan. Ordenagailuen gelan bilduko dira, eta partaide bakoitzak ordenagailu bat izango du eskura, Internetarako konexioarekin.

Saio praktikoa izango da. Irakasle edo gidari-lanak Ibon Serranok berak egingo ditu, baina taldean lan egingo dute. Ikastaro praktikoa izango da, bizpahiru ordukoa, eta horren ostean bakoitzak bere etxetik lan egin ahal izango du. Gero, hilean behin bildu daitezke taldea segimendu-lanak egin eta aholkuak eta esperientziak partekatzeko. Prozesu osoak lau hilabete inguru iraungo duela aurreikusi dute arduradunek, baina norberak erabakiko du bakoitzaren proiektuaren zabalera eta sakontasuna zenbatekoa izango den. Ibon Serranok esan du lan horrek ez daukala amaierarik, eta oso inportantea dela norberak mugatzea noraino iritsi nahi duen. Urte zehatz bat izan daiteke, belaunaldi zehatz bat edo abizen zehatz baten atzetik ikerketa bertikal bat egin daitezke, adar bat bakarrik jarraituz, zuhaitz osoa zabaltzeko beharrez. Posible da pertsonai garrantzitsuren bat agertzea arbasoen artean, eta pertsonai hori aztertzea ere izan daiteke helburu zehatz bat. Azken helburua ekimenean parte hartzen dutenek bakoitzak bere zuhaitz genealogikoarekin lotutako proiektu bat egitea da. Lan horien aurkezpenarekin amaituko da ekimena.

Ikastaroa doan izango da, eta euskara izango da ikastaroko erreferentziazko hizkuntza. Izena aurrez eman behar da Elgoibarko Izarran. Xehetasun hauek guztiak martitzeneko aurkezpenean azalduko dituzte.



Nola egin zuhaitz genealogikoak teknologia berrien bitartez?

Gure zuhaitzak landatzen!

IKASTAROA

Zure historia ikertu edota zeure buruari edo senitartekoei opari berezia egin nahi badiezu,
ANIMATU!

Ikastaroaren gidaria: Ibon Serrano Lasa
Aholkulariak: Pello Arrieta eta Javier Elorza historialariak

IKASTAROAREN AURKEZPENA

Azaroak 21, asteartea
19:00
Kultur Etxeko hitzaldi-gelan

Ikastaroa, berriz,
abenduarien 14an izango da
Elgoibarko Institutuko (Meka)
ordenagailu gelan.
Gero hilean behin
bilduko gara bakoitzaren
lanaren segimendua egiteko.

Zalantzak argitu eta izena emateko:
943 741 626
elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus (Imanol)



Antolatzailea:



ELGOIBARKO IZARRA
Euzko Katalua Txingorria

Laguntzailea:



Elgoibar BHI
www.elgoibarbi.eus

Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112




Urazanditik Pilarrera doan espaloia egoera oso txarrean dago: "Urazanditik Pilarrera doan espaloia hondatuta dago leku askotan, baldosak mugitu egiten dira, eta belarrak baldosa artetik irtenda daude. Oso egoera txarrean dago. Eskertuko genuke konpontzea".



Aizkorri kalean hobekuntzak egin behar dira: "Aizkorri kaleko igogailurako pasabidea oso zikin dago eta eskertuko genuke tarteka garbitzea. Era berean inguru horretan ispilu batzuk jarri dituzte, eta zinez eskertu dugu eguneko une askotan eta bereziki ilunetan hortik beldurrez pasatzen garenek, baina iruditzen zait pasabidearen bukaera aldera ondo legokeela besteren bat jartzea. Horrez gain, gune horretako argiztapena ez da batere ona, eta oso ilun egoten da zonalde hori".



Auto gidariek ez dituzte aparkatzeko debekuak aintzat hartzen: Urazandiko auzokide batek bi argazki hauek bidali ditu BARREnera. "Auto berbera da, bi leku desberdinetan aparkatzeko araua hausten duena. Lehenengo argazkian Urazandirako sarrerako errebuelta hasieran aparkatuta dago. Hor aparkatzea debekatuta dago, azken auto horrek trafikoari traba egiten diolako. Bigarren argazkian ezinduen lekuan aparkatuta dago. Gidariei eskatu nahi diet aparkalekuak ondo erabiltzeko, eta udaltzainei, aldiz, euren lana betetzeko, eta isuna merezi duen auto-jabeari, isuna jartzeko". BARREN udaltzainburuarekin harremanetan jarri da, eta honen inguruan ez dutela ezer erantzungo adierazi du.



Merkatu plaza atzeko pasabidea zikin-zikin egoten da askotan: "N634 errepidea garbitzen dutenean, goiko zikinkeria guztia beheko pasabidera jausten da, eta behekoa ez dute garbitzen. Oso zikina egoten da ingurune hori. Belarra luze, sasiak, txakur kakak... Ezkutuan geratzen den bidea da, baina jende askok erabiltzen dugu, eta uste dut sarriago garbitu beharko litzatekeela".

► EIDER PEREZ

COACH

Emakumeen jabetzarako coaching tailerra antolatu du Udalak, eta Eider Perez (Elgoibar, 1988) da saio horien gidaria. Sotoan biltzen dira, norberak bere barneko emozioak ezagutzen ikasteko eta emozio horiek kudeatuz, bizitzarako erabakiak hartzen ikasteko. Coach-a edo aholkularia da Eider Perez. Alemanian eta Ingalaterran bizitzen egon ostean, Bartzelonako Unibertsitatean egin zuen Coaching-ari buruzko masterra, eta orain Psikologia ikasketak egiten ari da. Coaching-aren munduan erabat barneratuta dago, eta mundu hori zenbat eta gehiago ezagutu, orduan eta gehiago gustatzen zaiola aitortu du.

- AINHOA ANDONEGI -



“Bezeroei euren helburuak lortzen laguntzeko metodologia da coaching-a”

◆ Zer da coaching-a?

Metodologia bat da, gure bezeroei euren helburuak lortzen laguntzen diena. Ez da psikoterapia bat, guk ez daukagu gaixoak; bezeroak ditugu. Coaching-a helburuetara bideratuta dago erabat, eta psikoterapiak gehiago dira pertsonen egonezinak lantzeko. Coaching-ak gaur gauden egoeratik aurrera begiratzen du helmugara edo helburura, ez du atzera begirakoa lantzen, etorkizunera begira egiten dugu lan, bezeroak lortu nahi duen hori lortzeko. Apur bat aztertzen dugu bezero hori orain arte izan dena, baina batez ere zentratzen gara etorkizunean izan nahi duen horretan. Helburua izan daiteke arlo pertsonalekoa zein profesionalekoa. Nik bi alor horietan egiten dut lan.

◆ Nola lantzen da coaching-a?

Lehenik eta behin helburua zehazten da, eta gero, aztertu behar dira zeintzuk diren helburu horretara iristea oztopatzen duten arrazoiak. Coaching-arekin saiatzen gara dependentzia emozionalik ez sortzen, eta hori da psikoterapiarekin daukagun beste desberdintasun bat. Hau da, coaching saioak ez dira asko izaten, zor-

tzi edo hamar saiotan bukatu daiteke prozesua, eta psikoterapia batean aldiz urteak egon zaitezke. Nik bezeroaren hasierako balorazioa egiten dut. Lehenengo elkarrizketa horren ostean baloratzen dut bezeroa zein egoeratan dagoen eta horren arabera erabakitzen dut zenbat saiotan lortuko dugun definitutako helburu horretara iristea. Beti dago luzatzeko aukera, baina hasiera eta amaiera bat ditu. Agian pare bat hilabeterekin nahikoa izan daiteke.

◆ Zer lortzen da coaching prozesuaren ostean?

Bezeroari tresnak ematen dizkiot berak bere barrutik landu dezan bidea. Nik sekula ez diet esaten bezeroei zer egin behar duten, ez dut aholkurik ematen. Coaching-ean balio handiagoa dauka bezeroa bera konturatzea zer egin behar duen. Aditu gisa kanpotik ikusi dezaket zer den bezeroarentzat onena, baina gerta daiteke aholku hori inposizio bezala ikustea bezeroak, eta gero ez

badio funtzionatzen, errua niri botatzea. Nik aukerak jartzen ditut mahai gainean, eta bezeroa ahalduntzen dut erabaki hori hartu ahal izateko. Azken batean gizaki guztiok ditugu tresnak gure barnean erabakiak hartzeko, baina tresna horiek erabiltzen jakin egin behar da, eta hori erakusten saiatzen naiz.

◆ Zeintzuk dira zure bezeroak?

Izan daitezke norbanakoak edo enpresak, baina azkenaldian, enpresekin egiten dut lan batez ere. Nire bezeroak ez dira gaixoak. Gaixorik, hondoa jota edo triste dauden pertsonak ez dute coach bat behar. Nik ikusten badut pertsona bat niregana etortzen dela hitz egiteko beharrarekin, inongo helbururik gabe, psikologoarengana bideratzen dut. Ez da hobe psikologoa coach-a baino, edo alderantziz, norberaren momentuaren arabera bata edo bestea aukeratu daiteke. Nire bezeroak ez dute arazo bat eduki behar, argia ikusi behar dute nonbait. Argi hori egon daiteke haitz handi baten atzean, baina jakin behar dute hor dagoela. Argi hori ikusten ez duten pertsonekin ezin da coaching egin, ez delako beraien momentua. Nire bezeroak izaten dira norabide baten bila dabiltzan pertsonak edo egoera konkretu baten aurrean irtenbide bat behar duten enpresak. Enpresak gero eta gehiago ari dira inbertitzen coachingean, eta hori oso inportantea da.

◆ Eta, zer eskatzen dizute enpresek?

Normalean talde lanerako arazoak dituzten langileak formatzeko eskatzen dituzte. Talde-lanak garrantzia handia dauka, eta enpresentzako ezinbestekoa da talde-lanak ondo funtzionatzea. Nik langileen balorazioa egiten dut, eta talde kohesioa lantzen dut beraienekin. Egoera aztertzen dut, gatazka detektatu eta azkenik kohesioa landu. Baina ni kanpoko agente bat naiz enpresan, ez naiz inor esateko langile bat kaleratu behar den edo ez, erabaki hori enpresako ardura-dunak edo liderrak hartu behar du. Nik egoera aztertu eta arduradunei aurkeztzen diet, baina erabakiak hartzeko beraien ardura da. Talde kohesioaz gain, lidergoa

“Coaching-a ez da psikoterapia bat. Guk ez dauzkagu gaixoak, bezeroak dauzkagu”

ere lantzen dut enpresekin. Gertatzen da batzuetan enpresa batek langile bat saritu nahi duela, promozionatu edo ardura postu batean jarri nahi duela, teknikoki oso langile ona delako edo beste edozein arrazoirengatik. Baina pertsona horri, adibidez, giza baliabideak kudeatzeko gaitasuna falta zaio, edo arazoak ditu lidergoa hartzeko, edo ez daki jende aurrean hitz egiten... Enpresak kasu horretan eskatzen dit pertsona hori formatzeko, gaitasun horiek eskuratzeko. Segurtasuna eta komunikazioa lantzen ditut pertsona horrekin.

◆ Udalarekin elkarlanean, emakumeen jabetzarako coaching tailerra ematen ari zara. Zer lantzen duzue tailer horietan?

Emozioen kudeaketa lantzen dugu, emakumeak ahalduntzeko. Bi orduko hamar saio egingo ditugu, bakoitzarentzat hogeitau ordu. Ahalduntzea lantzen ditugu, filosofia feminismo batetik. Tresnak ematen dizkiet beraien emozioak kudeatzeko eta erabakiak hartzeko. Nik lagundu egiten diet, baina barne-lana da garrantzitsua. Horrelako saioetan emakume asko etortzen dira zoriontasunaren teknikak emango ditudalakoan. Koaderno eta boligrafoa prest-prest izaten dituzte, eta zoriontsu izateko zer egin behar duten entzuteko zain egoten dira. Baina fokoa aldatu eta barrura begira jartzen ditut, konturatzeko tresna horiek beraien dituztela euren barnean eta ez dizkiedala nik eman behar. Azkenean nire tresnak eta beste batenak desberdinak dira, eta niri balio didanak beste bati ez dio balioko. Nik azaltzen diet emozioak sentitzea na-

turala dela, denok ditugula sentimenduak, baina ezin garelako emozio horietan kateatuta bizi. Adibidez, beldurra edo tristura sentitzea normala da, baina gai izan behar da emozio horietatik irteteko. Hori da emozionalki aditua izatea.

◆ Desberdina da orduan pertsonekin eta enpresekin lantzen duzuna?

Ez da hain desberdina, azken batean enpresetan ere pertsonak daudelako. Talde kohesioa edo lidergoa landu behar badituzte enpresa batean, pertsonen emozioak landu behar dituzte. Pertsonen segurtasuna, liderrekin komunikatzeko duten gaitasuna, giza baliabideak kudeatzeko duten gaitasuna... Horiek guztiak emozioak dira. Aurreko batean, adibidez, langile batek esaten zidan ez zela gai nagusiari zerbait esateko. Horren atzean segurtasun falta eta beldurra daude. Azken batean ahalduntzea lantzen dut bietan: enpatia, asertibitatea, komunikazioa eta horrelakoak lantzen ditut.

◆ Zuk ez duzu aholkurik ematen, baina seguru bezero bat baino gehiago joaten zaizkizula aholku eske.

Bai, asko, baina ni tinko mantentzen naiz nire lekuan. Etika profesionala oso argi daukat, eta nik badakit epe luze-rako helburuetan okerragoa izango dela aholkua ematea. Ezin dut nire subjektibitatea agerian utzi, nire bizitzaren eta bezeroaren bizitzako markoa oso desberdinak izan daitezkeelako. Nire lana da bezeroarekin konektatu eta bezeroa ulertzea, baina ezin naiz sekula bere nahigabearen erori, bestela bi izango gara zulotik ateratzeko beharra izango dugunak. Nik kanpotik begiratu behar dut bezeroa, bere helburua zehaztu eta helburu hori lortzeko giltzak eman behar dizkiet. Zulotik ateratzeko aukeren artean izan dezake eskailera bat, soka bat edo igogailu bat. Berak aukeratu behar du, berarentzako onena den aukera. Aukera okerra egin dezake, eta horretarako egongo naiz ni, berriz norabidea zehazten laguntzeko, baina ezin dut bere ordean aukeratu, erabakia berarena izan behar da.



On egin!

GIDA GASTRONOMIKOA

...eta kitto! eta Barren astekarietan
argitaratutako jatetxe eta tabernen gida
2017ko azaroak 17



AGUIÑASPI taberna

Urkizu 22. EIBAR

943 12 80 86

Eguneko menua, menu berezia,
gosariak, plater konbinatuak, razioak,
bokatak, hamburgesak, pintxoak...



ALBERT taberna

Armagin 1. EIBAR

943 70 21 87

Eguneko menua,
ostegunetik aurrera afariak,
asteburuko menua eta karta.



ARKUPE gastro pub

Isasi 2. EIBAR

943 70 26 91

Gosariak, eguneko menua, karta,
talde-menua, plater konbinatuak,
hamburgesak, catering zerbitzua.



ASTELENA gastroteka

Estaziño 7. EIBAR

943 20 70 32

Espezialitatea: txuleta, 30-160 egenez
ondutako okela (zapora gehiago,
samurragoa, osasunerako hobea).



BAISI taberna

Urkizu 11. EIBAR

943 53 08 16

Espezialitatea: patata-tortilla,
Entsaladilla, bokatak, hamburgesak...
Ardoetan aukera zabala.



BELAUSTEGI BASERRIA jatebesa

San Migel Gaina. ELGOIBAR

943 74 31 02

Ezkontzak, jaunartzeak, bataioak, urrezko
eta zilarrezko ezkontzak, enpresa bazkariak
eta kintoak. Karta, eguneko menua eta
dastatze-menua.



BIRJIÑAPE kafetegia-jatetxea

T. Etxebarria 16. EIBAR

943 82 13 41

Eguneko menua, bokatak, talde bazkari
eta afariak, jaunartzeak, bataioak...
Zure aurrekontura egokitzen gara.



BOSSA gastroteka

Ego Gain 7. EIBAR

943 20 67 53

Etxean bezala. Gosariak, pintxoak,
bokatak, razioak, pizzak eta
hamburgesak.



CHALCHA jatetxea

Isasi 7. EIBAR

943 20 11 26

35 eta 50 €tako menu bereziak,
18 €tako eguneko menua, karta
Prezio guztietan BEZa barne.



FAUSTO taberna

Karmen 1. EIBAR

943 70 01 89

Menu bereziak,
betiko giro tradizionala,
eibartar peto-petoa.



FORCHETTA pizzeria

Arragueta 18. EIBAR (jarrera Bidebarnetatik)

943 25 77 55

Italiar pizza tradizionala, osagai fresko eta naturalekin. Egunero egindako artisau pasta, unean eskuz luzatua.



GABI jatetxea

Kalebarren plaza. ELGOIBAR

943 74 12 30

Hemengo jaki freskoekin egindako sukaldaritza. Jaunartzeak, bataioak, Lunch-ak, eguneko menua, karta, enpresa bazkariak...



IBAI-ONDO jatetxea

Giza Eskubideen parkea 1. ELGOIBAR

943 25 60 28

Bazkari tradizionalak, parrilla, enpresa menuak, karta eta eguneko menua.



KANTABRIA jatetxea

Arrate. EIBAR

943 12 12 62

Karta, menu bereziak, eguneko menua, enpresa bazkariak, ezkontzak, jaunartzeak, bataioak...



KILI KILI croissanteria

Ibarkurutze 12. EIBAR

943 20 24 01

Gosariak, pintxoak, bokatak, afariak eguneko menua, txokolatea eta txurroak, meriendak, ospakizunak...



LUZAIDE jatetxea

Mendarozabal z/g. MENDARO

943 75 61 66

Eguneko menua 12 € astegunetan. Asteburuetako eta jaiegunetako menua 14 €an. Pintxoak eta ogitartekoak arratsaldeko 20:00ak arte egunero.



SALENTO ristorante italiano

Pedro Migel Urzuzuno 10. ELGOIBAR

943 74 01 96

Eguneko Menua, pizza italiarrak. Etxez etxeko banaketa aste guztian zehar.



SIGMA jatetxea

Zizilion 1. ELGOIBAR

943 74 85 31

Jaunartzeak, bataioak, urrezko/zilarrezko ezkontzak, menua, karta, enpresa bazkariak, kinto ospakizunak.



SU BEROA taberna

Bista Eder 11. EIBAR

943 47 77 79

Gosariak, eguneko menua, talde menua, pintxo bereziak, entsaladak, hamburgesak, razioak...



TIRO PITXON jatetxea

Arrate. EIBAR

943 20 88 59

Eguneko menua, menu bereziak, karta, ospakizunak. Bi jantoki (bakoitzean 80 pertsona). Astelehenetan itxita.



Hotel **TXARRIDUNA** jatetxea

Ermuaranbide 1. ELGOIBAR

943 74 04 90

Eguneko menua, kinto ospakizunak, enpresa menuak, karta, bataio eta jaunartzeak.



ZUBI GAIN taberna

Urkizu 11. EIBAR

943 25 40 60

Ogitartekoak, plater konbinatuak, tapak, entsaladak, pintxo bereziak... Etxerako zerbitzua: bapobapo.com.



Neguko oporraldirako eskaintza



Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika Sailak eta Elgoibarko Udalak haur eta gazteentzako eskaintza oparoa antolatu dute neguko oporraldirako. Atxutxiamaika Sailak eta Ludoteka udal zerbitzuak Haur Hezkuntzako bigarren mailatik Lehen Hezkuntzako seigarren mailara artekoentzako eskaintza bateratu osatu dute, eta Gaztelekuak DBH eta Batxilergoko gazteentzakoak. Parte hartu nahi dutenek azaroaren 20tik abenduaren 4ra eman beharko dute izena. Mendaroko Gabonlekuak ere Elgoibarko Izarrak kudeatuko ditu aurten. Haur Hezkuntzako hirugarren mailatik Lehen Hezkuntzako seigarren mailara artekoentzako eskaintza izango da, eta interesatuek azaroaren 20tik 30era arteko epea dute izena emateko.

- AINARA ARGOITIA -

Neguko oporraldia ekintzaz bete da haur eta gazteentzako. Haur Hezkuntzako bigarren mailatik Lehen Hezkuntzako seigarren mailara arteko umeentzako eskaintza prestatu dute Atxutxiamaikak eta Ludotekak. Abenduaren 26tik abenduaren 29rako eta urtarrilaren 2tik urtarrilaren 5erako txokoak antolatu dituzte goizero, 9:00etatik 13:00etara. Plazak mugatuak izango dira, eta horrenbestez, interesatuek izena eman beharko dute. Txandetako bakarrean izena ematen dutenek 45 euro ordaindu beharko dituzte (Elgoibarko Izarrako eta Ludotekako bazkidek, 43 euro), eta bi txandetarako apuntatzen direnek, berriz, 90 euro (bazkideek, 80 euro).

Baina ez da txokoetara mugatuko neguko eskaintza, bestelako ekintzak ere antolatu dituztelako, txokoak egingo diren egunetarako. Familia-giroan gozatzeko egunak izango direla aurreratu dute; edo hala nahiko lukete behintzat,

eta helburu horrekin osatu dute egitaraua. Hona, adinkako eskaintza.

Apariketan (HH2-HH4)

Abenduaren 26rako sototeka antolatuta dute HH2-HH4ko meska-mutilentzat. Kultur Etxeko Sotoan atonduko dute jolaslekua. Psikomotrizitaterako gunea, jolas sinbolikoaren txokoa, eskulanetarako eta marrazketa librerako gunea eta sukalde-txokoa izango dituzte umeek aukeran, euren ahalen arabera egituratuta. Plaza mugatuak izango dira, eta txartelak aterako dituzte antolatzaileek. Txartel horiek Ludotekan edo Elgoibarko Izarraren bulegoan eskuratu ahalko dituzte interesatuek, doan. Bi txanda egingo dira: bata, 17:00etatik 18:15era, eta bestea, 19:15etik 19:30era, eta haurrak heldu batek lagunduta joan beharko dira.

Abenduaren 29rako, berriz, *Ezberdin bezain eder* ikuskizuna ekarriko dute Ludotekara, 17:30ean. Nerea Ariznabarreta eta Mariano Hurtado bikoteak ezberdin izatearen onurez jardungo dira, hitzaren eta zuzeneko musikaren bidez. Aniztasuna aberastasuna dela azpimarratuko dute mezuan.

Urtarrilaren 2rako familia-tailerra antolatuta dute adin tarte honetako umeentzat eta haien familientzat, ludotekan, 10:30etik 12:30era. Kiribil eta kiribiltxoek ere parte hartuko dute saioan, eta guraso eta umeek elkarrekin jolasteko saioa izango dute. Kantu eta jolasak ikasiko dituzte, elkarrekin jolastuko dira eta antzerkitxo batekin bukatuko dute saioa. Pertsonako lau euro ordaindu behar dira parte hartzeko (bazkideek 3 euro).

Firin-faran (HH5-LH1)

Abenduaren 26an HH2-HH4ko umeentzat Sotoan atonduko duten jolaslekua Firin-faraneko adin tarteko umeentzat egokituko dute biharamunean, abenduaren 27an. Formato bera izango du sototekak, baina jolasak eta gainerako egitekoak adin tarte honetako umeentzat prestatuko dituzte. Bi saio izango dira egun honetan ere, bezperako ordutegi berdinetan, eta sototekara sartzeko txartelak aurrez eskatu

beharko dira, Elgoibarko Izarran edo Ludotekan. Gurasorik gabe sartu ahalko dira.

Urtarrilaren 3rako, berriz, neguko postreak prestatzen ikasteko ikastaroa iragarri dute haurrentzat eta haien familientzat. Ludotekan izango da tailerra, 10:30etik 12:30era bitartean. Pertsonako lau euro ordaindu behar dira parte hartzeko (bazkideek 3 euro).

Arratsalderako, berriz, lago magoa gonbidatuko dute ludotekara. HH5-LH3 arteko umeentzako saioa izango da, doan. Abixadaneko umeentzako ere bada saioa.

Abixadan (LH2-3)

LH2-3 arteko umeek abenduaren 28an, ostegunez, izango dute Sotoko sototekaz gozatzeko aukera. Ezaugarriak berdinak izango dira. Bi txanda izango dituzte aukeran, 17:00etatik 18:15era eta 18:15etik 19:30era, eta aurrez Ludotekan nahiz Elgoibarko Izarran doan eskuratutako txartelak beharko dituzte sartzeko.

Aldenik-alden (LH4-6)

Aldenik-alden egitasmoko umeentzako ekintzak oraindik zehazteke daude, izan ere gaztetxoekin eurekin adostu nahi dituzte ekintzok. Horretarako abenduaren 1ean batuko dira Kultur Etxean, 17:30ean. Abenduaren 27rako egun osoko irteera bat iragarri dute, abenduaren 29rako kotiloia eta urtarrilaren 2rako arratsalde pasa, baina zehaztasunak taldean lotuko dituzte, esan bezala.

Familia-irteera

Urtarrilaren 4an, berriz, familia-irteera egingo dute Oñatira. Txokolatexia interpretazio-gunea eta Arrikruzeko kobak bisitatuko dituzte. Familia-irteera izango da, baina LH2tik gorakoak bakarrik joan ahal izango dira. Pertsonako 12 euro ordaindu beharko dira (bazkideek eta familiarte-koek 10 euro).

Gaztelekuaren eskaintza

Gaztelekuak, bestalde, DBHko eta Ba-

txilergoko nerabeentzako eskaintza prestatuko du. Batzarra egingo dute lehenengo, hala ere, gazteen nahiak eta beharrak ezagutzeko. Batzarra azaroaren 19an egingo dute, Gaztelekuan, 18:00etan.

Elgoibarko ekintzetarako oharra:

Matrikulak bi epealditan ordaintzeko aukera eskainiko dute antolatzaileek, eta horrez gain, Elgoibarko Udalak diru-laguntzak ere emango ditu oinarrizko behar pertsonalei eta familiarrei erantzuteko baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenentzat, familia ugarientzat eta seme-alaba bat baino gehiago apuntatu nahi dituztenentzat. Kuotaren %70 ordainduko die Udalak DSBL, DBE eta GLL laguntzak jasotzen dituztenei, eta kuotaren %30ekoa, familia ugariei eta txokoetan bigarren seme-alaba bat apuntatu nahi dutenei.

Mendaroko Gabonlekuak

Elgoibarko Izarrak kudeatuko ditu aurrez Gabonlekuak. HH3tik LH6ra arteko umeentzako izango dira, abenduaren 26, 27, 28 eta 29an eta urtarrilaren 2, 3, 4 eta 5ean, 9:30etik 13:00etara, Azpilgotako Kultur Etxean. Interesatuek azaroaren 20tik 30era arteko epea dute izena emateko aukera. Horretarako, 45 euro ordaindu beharko dituzte ondorengo kontu korrante honetan: 2095 5054 011061225891 (Kutxa). Ordainketa-txartela udaletxean aurkeztu beharko da gero, edo bestela erregistroa@mendaro.eus helbidera bidali. Familia ugariei %25eko deskontua aplikatuko diete hirugarren umeagatik eta gizarte-zerbitzuetako onuradunei %50ekoa. Elgoibarko Izarrako bazkideen seme-alabek, berriz, %10eko deskontua izango dute.

Informazio gehiagorako:
Elgoibarko Izarra 943 741 626
(aisialdia@elgoibarkoizarra.eus)
Elgoibarko Ludoteka 943 748 883
(ludoteka@elgoibar.org)

Gure Balioak saria jaso du Felix Etxeberriak ibilbide oso baten aitortza gisa



Gure Balioak saria jaso zuen joan zen astean Felix Etxeberria Parapanek, Mendaroko San Agustin kultugunean egin zuten ekitaldian. Ibilbide oso baten aitortza izan zen. Epaimahaiak Etxeberriaren "ekimena eta izaera ekintzailea" nabarmendu zituen, eta baita haren "zintotasuna, ausardia eta ekimen berriei egiteko ilusioa" ere. Felixek berak esker on hitzak izan zituen ibilbide osoan aliatu izan dituen laguntzat, eta bereziki, Loli Canales emaztearentzat.

Juan, Nerea eta Maddi Arriola aita-alabek hasi zuten ekitaldia, biolin emanaldiarekin. Ondoren, Maite Maiora mendiko korrikalariak kirolaren balioez hitz egin zuen. Taldetasuna, konpromisoa, konfiantza, ausardia, ahalegina eta ekiteko ilusioa aipatu zituen, besteak beste, baloreen artean, eta horiek eta gehiago aitortu zizkieten ondoren Felix Etxeberria eguneko protagonistari. Haren ibilbidea laburtzen duen bideo bat ere jarri zuten (*barren.eus*-en duzue ikusgai), Etxeberriaren bultzada izan duten elkarte eta erakundeetako ordezkarien lekukotzekin, eta Parapan zerbeit bada, euskaltzale amorratua eta ekintzaile saiaturia dela nabarmendu zuten. Ekitaldia, 'Xalbadorren heriotzean' kantuararekin itxi zuten Arriola aita-alabek.

Jostailu erakusketa irekiko dute eguenean Kultur Etxeko sotoan

Atxutxiamaiak, Ludotekak eta Gaztelekuak jostailuen erakusketa antolatu dute, Udaren babesarekin. Jostailuak aukeratzeko orduan kontuan izan beharrekoen berri emango diete familiei, euren seme-alabentzako jostailu egokia aukeratu dezaten. Eguenean zabalduko dute erakusketa 17:00etan, eta zapatuta arte egongo da ikusgai, Kultur Etxeko sotoan. Eguen eta barixakuan, arratsaldean, eta zapatuan, aldiz, goizez, 10:00etatik 12:00etara. 10 urtetik beherako umeak heldu batek lagunduta joan behar duela jakinarazi dute arduradunek.

Egitasmo honen barruan, bestalde, pintxo-jola dastaketa izango da barixakuan, gaztetxean, nerabe eta gazteentzat. Pintxo-jana eta karta eta mahai joko dinamizatuak egingo dituzte, 21:00etatik aurrera.

Jaiotzen lehiaketa, abenduaren 10ean

Parrokiako Katekesiak jaiotzen lehiaketa antolatu du. Jesusen jaiotza irudikatuko duten figurez osatu beharko dira jaiotzak, bakoitzak nahi duten materiala erabilita. Arduradunek adierazi dute familiakoek eta lagunek ere parte hartu dezaketela jaiotza egiten. Izena emateko bi aukera daude: elgoibarkojaiotzak@gmail.com helbidera idatzita abenduaren 8rako, edo Parrokiako lokaletan abenduaren 9an, 11:30etik 13:30era. Lehiaketa abenduaren 10ean izango da, 11:00etatik aurrera. Meza ostean banatuko dituzte sariak. Lehen sailkatuek garaikurra eskuratuko dute, baina parte hartzaile guztientzako egongo dira sariak. Ondoren, Errosario kaleko 6. zenbakian dagoen lokalean jarriko dituzte ikusgai jaiotza guztiak urtarrilaren 8ra arte.



Euskarazko ipuin lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak

Mendaroko Udalak euskarazko ipuinen lehiaketa antolatu du, LH5etik DBH4. mailako ikasleentzako. Lanak aurkezteko azken eguna abenduaren 1a izango da. Kartazal batean ipuina sartu beharko da, ezizenarekin eta maila zehaztuta. Beste gutunazal batean, aldiz, ezizen horri dagozkion izen-abizenak, telefonoa eta ikastetxea zehaztu beharko dira. Lanak ondorengo helbidera bidali behar dira: Mendaroko Udala, Herriko Enparantza 1, 20850, Mendaro.

Hainbat ekintza antolatu ditu GARE Irratizaleen taldeak astebururako, taldearen 25. urteurrena ospatzeko

Herriko hainbat irratizalek GARE elkarte sortu zuten 1992an, euren zaletasunari buruzko esperientziak partekatu eta ordura arte bakoitzak bere aldetik egiten zuena taldean egiteko. 25 urte pasatu dira ordutik. Teknologia berrien garapenaren ondorioz, irratizaleen mundua ere asko aldatu da. Hasieran 27 megahertziotako kanalean emiitzen zuten, eta kamioilariekin edo taxi gidariekin kontaktatzen zuten, batez ere. Gaur egun smartphone eta Interneti esker, HF edo VHF bandetara konektatzen dira.

Taldeak irratizaleen lehiaketetan parte hartu izan du, eta 24 orduz jarraian emiitzen ere jardun izan dute, ahalik eta kontaktu gehien lortzeko. Urte batean 2.428 konexio lortu zituzten 24 orduan.

25. urteurrenaren harira, hilabete osoan zehar, "EH2GRE" indikatibo beziarekin transmititzen ari dira elkarteko kideak, eta dagoeneko 1.500 kontaktu baino gehiago lortu dituzte mundu osoko irratizaleekin. Europa, Asia, Ozeania eta Ameriketako jendearekin kontaktatu dute, besteak beste.



EGITARAUA

25. urteurrena ospatzeko, irratizaleen munduarekin zerikusia duten hainbat ekintza antolatu dituzte astebururako:

AZAROAK 17, BARIXAKUA

◆ **18:00-20:00** Irrati-emisora eta beste gailuen erakusketa Kultur Etxean. Domekara arte.

AZAROAK 18, ZAPATUA

◆ **11:00** Ikastaroa: *Zure Kodeplug-a programatu. BrandMeister Sarearen erabilera aurreratua* (Rafa Martinez EB2DJB-ren eskutik. Bilbo).

◆ **17:30** Hitzaldia: *Irrati digitala irratizaleen analogikoentzat* (Iñigo EA2CQ Bastarrikaren eskutik. Gasteiz)

AZAROAK 19, DOMEKA

◆ **11:00** Hitzaldia (Euskaraz/Gazteleraez): *Irratia eta mendia: zaletasunak bateratzen* (Iratxe Urizar EA2DNO eta Alberto Diez EA2DCA-ren eskutik. Durango).

◆ **14:30** Bazkaria, Karakate jatetxean.

* Erakusketa bisitatzen duten 6 eta 17 urte bitarteko ume eta gaztetxoaren artean PMR walki pare bi zozketatuko dira (azaroak 19ko *Irratia eta Mendia* hitzaldian parte hartzen dutenek zozketan aukera bikoitza izango dute).

'La Boheme' opera eskainiko dute gaur Herriko Antzokian, aurrez grabatutako formatuan



La Boheme opera entzutetsua ikusteko aukera izango da gaur iluntzean Herriko Antzokian, 20:30etik aurrera. Lau akto ditu operak. Giacomo Puccini-ren musika eta Giuseppe Giacosa eta Luigi Illicak prestatutako italiarazko testuarekin osatutako ikuskizuna izango da. Obra honek Puccini ikasle zen garaiko kontakizunak islatzen ditu. Milango musika kontserbatorioan egin zituen ikasketak, eta han bizitakoak jasotzen ditu operak. Sarrerak 10 euro balio ditu (Gazte txartelarekin, 7 euro).

Txotxongilo ikuskizuna, domekan

Kontukantari txotxongilo ikuskizuna egongo da ikusgai domekan, Herriko Antzokian. Oroimenean ditugun abestiak bildu, eta reggea, rap edo blues estiloetara moldatu dituzte. Sandra eta Boti txotxongiloen laguntzarekin betiko abesti horiek beste modu batean bizitzeko aukera eskainiko dute. Familian gozatzeko ikuskizuna izango da. 16:30ean hasiko da saioa, eta ordubeteko iraupena izango du. Gurasoek 5 euro ordaindu beharko dituzte, eta hurrek, aldiz, 3,5 euro.

Elgoibartarren eta mendararren emaitzak Behobia-Donostia lasterketan

Behobia-Donostia maratoi erdi entzutetsua jokatu zen domekan, eta Elgoibarko eta Mendaroko antxitxikiak ere izan ziren proba horretan: 56 elgoibartar eta 14 mendaroar iritsi ziren helmugara. Guztira 24.474 lagunek amaitu zuten aurten Behobia-Donostia lasterketa. Carles Castillejo (1:00:39) kataluniarra izan zen azkarrena hirugarren urtez jarraian, eta emakumezkoetan, Aroa Merino antxitxikari kanariarra gailendu zen, bigarrenkoz, 1:11:05 denborarekin. Gure ordezkarien artean, Osel Sanchez izan zen azkarrena gizonezkoetan, 1:12:04ko denborarekin, eta Cristina Villalobos izan zen emakumezkoen artean azkarrena, 1:24:25eko denbora eginda. Handbike proban Igor Elizburu Astigarraga elgoibartarra 21. postuan sailkatu zen, 01:03:31ko denborarekin.

ELGOIBARTARREN ETA MENDAROARREN SAILKAPENA

ELGOIBAR.....

Postua	Izen-Abizenak	Denbora
108	Osel Sanchez Moya	01:12:04
139	Gorka De La Horra Irastorza	01:12:50
289	Mikel Armendia Bereziartua	01:15:21
341	Roberto Gonzalez Fernandez	01:16:12
367	Julen Salaberria Anton	01:16:30
920	Oier Irazabal Garcilandia	01:20:51
937	Iban Quintana Garcia	01:20:58
1011	Berex Ortiz Ardanza	01:21:30
1023	Iñigo Iturbe Ortiz De Zarate	01:21:34
1477	Gorka Cebrian Arregi	01:23:48
1621	Cristina Villalobos Santos	01:24:25
1638	Haritz Arribillaga Elizburu	01:24:30
1889	Andoni Gabilondo Argarate	01:25:25
2522	Luis Santamaria Fernandez	01:27:41
23076	Iñigo Aduriz Lekuona	01:29:02
3497	Joseba Sagasta Anton	01:30:00
3845	Asier Cordon Blazquez	01:30:54
4146	Asier Murua Juaristi	01:31:33
24659	Joseba Juaristi Gurrutxaga	01:32:46
4928	Zigor Bengoetxea Ansola	01:33:22
5190	Miguel Montes Crespo	01:33:56
5404	Jose Antonio Ruiz Del Rey	01:34:25
5406	Humberto Fernandez Gonzalez	01:34:25
6066	Igor Torres Castilla	01:35:48
6292	Ibon Villanueva Altuna	01:36:13
6931	Javier Hernando Albert	01:37:21
7293	Francisco Javier Boo Fernandez	01:37:55
7521	Carlos Ayesta Arruza	01:38:19
7589	Gotzon Gurrutxaga Bengoetxea	01:38:25
7745	Asier Arzamendi Mujika	01:38:39
8482	Agurtzane Arriola Diez	01:39:43
8673	Guillermo Ezenarro Iso	01:40:00
8911	Zigor Egia Lejardi	01:40:23
9929	Maite Uribe Odria	01:42:00
10106	Ismene Fulgencio Elizburu	01:42:19
10110	Maria Carmen Leon Artetxe	01:42:20

ELGOIBAR.....

Postua	Izen-Abizenak	Denbora
10151	Iosu Iriondo Elorza	01:42:24
10257	Nerea Sanz Avila	01:42:34
12651	Azucena Sanz Mahave	01:46:35
12709	Miguel Angel Castro Garrues	01:46:42
12783	Ander Gabilondo Intxausti	01:46:50
13281	Eneko Arrizabalaga Garate	01:47:36
13477	Bruno Guerrero Labanda	01:47:53
14571	Iñaki Barrutia Mugertza	01:49:36
14729	Aritz Garcia Molledo	01:49:53
14920	Aitor Ezenarro Irusta	01:50:16
17008	Olatz Gil Epelde	01:54:03
17010	Hasier Goikoetxea Iriondo	01:54:03
17043	Nora Miguez Perez	01:54:07
17388	Olatz Galarza Arrese	01:54:48
17393	Jokin Rodriguez Magunazelaia	01:54:49
17395	Ainara De Pedro Epelde	01:54:49
18471	Rebeca Murguiondo Martinez D. Ezquerecocha	01:56:52
19063	Iker Ezenarro Irusta	01:58:02
20979	Aaron Ortiz Pedrosa	02:03:05

MENDARO.....

Postua	Izen-Abizenak	Denbora
162	Alonso Gomez Viña	01:13:17
592	Miguel Angel Urkiza Anakabe	01:18:43
1064	Roberto Ugidos Tirados	01:21:46
1298	Iñigo De La Iglesia Ugartemendia	01:22:59
1437	Josu Motriko Larrañaga	01:23:38
1685	Eneko Salegi Leniz	01:24:39
2539	Israel Soto Calderon	01:27:44
2582	Ander Alvarez Narbaiza	01:27:50
6007	David Garcia Fernandez	01:35:39
6493	Patxi Salegi Martija	01:36:33
7455	Igor Ezenarro Arriola	01:38:13
7456	Borja Rodriguez Barreras	01:38:13
7464	Jurdan Ezenarro Arriola	01:38:14
10031	Julen Arrillaga Muguerza	01:42:12

Bihar izango da Karakateko igoera



Karakateko Igoera jokatu dute bihar. 11:00etan irtengo dira korrikalariak Kalegoen plazatik, eta Karakatera arteko bidea egin beharko dute, norberak aukeratzen duen bidetik. Izen-ematea doan da. Interesatuek aurrez eman dezakete izena morkaiko@morkaiko.net helbidera idatzita, edo bihar bertan, 10:00etatik aurrera Kalegoen plazan.

Iaz 75 lagunek hartu zuten parte inoizko azkarrena izan zen Karakateko Igoeran, {Iban Muruak eta Maite Maiorak ordura arteko errekorrak ondu zituzten-eta}. Iban Muruak 26 minutu eta 52 segundoan osatu zuen igoera. Maite Maiorak, berriz, 31 minutu eta 37 segundoan. Parte hartzaileen artean hutsune nabarmen bat egongo da aurten, proba bost alditan irabazi duen Iñigo Larizek ez baitu parte hartuko.

Karakateko Igoera hasi baino bost minutu lehenago Ibon Iparragirre presoren aldeko argazkia aterako dute Kalegoen plazan. Elgoibarko zenbait bizi-lagunen eta Sare kolektiboaren egitasmoa izan da hau. Ondarroako presoa gaixorik dago, hiesa du, eta senideek ohartarazi dute defentsa gutxi geratzen zaizkiola bizirik irauteko. Egitasmoaren sustatzaileek korrikalarietara eskatu diete Karakateko igoeran lbonen aldeko kamisetarekin parte hartzeko.

Denbora onak egin dituzte igerilari elgoibartarrek Azpeitiko zehaztasun frogan

Joan zen zapatuan Zehaztasun Ligako lehenengo jardunaldia jokatu zuten Azpeitiko kiroldegian, eta Elgoibarko igerilariak ere han izan ziren. Aipatzeko denboren artean, ondorengoak nabarmendu dituzte Elgoibarko Igeriketa Taldeko ardura-dunek: Markel Larrañagak 1,35,54 denbora egin zuen; Iñaki Astigarragak 1,46,25koa; Noa Dobarrok 1,45,22koa eta Eneko Pastorek, berriz, 1,34,06koa.



Emaitzak

FUTBOLA

Haundi 3 – Beasain 2
 Elgoibar 4 – Urki 4 (Erreg.)
 Anaitasuna 5 – Elgoibar 4 (Ohorezko jub.)
 Ikasberri 1 – Elgoibar 5 (1. jub.)
 Elgoibar 1 – Anaitasuna 2 (Ohorezko kad.)
 Soraluze 2 – Elgoibar 1 (Kad.)
 Elgoibar 2 – Eibar 4 (Ohorezko inf.)
 Elgoibar 3 – Lazkao 1 (Inf. txiki)

ESKUBALOIA

Alcorta Elg. 36 – Usurbil 24 (Sen. mut.)
 San Adrian 21 – Tecnifuelle Elg. 44 (Jub. nesk.)
 Deca Elg. 20 – Urduliz 30 (Jub. mut.)
 Legazpi 36 – Astigarraga Elg. 36 (Jub. nesk.)
 Zarautz 24 – Beristain Elg. 22 (Jub. nesk.)
 Urkunde Elg. 20 – Urduliz 29 (Kad. mut.)
 Cometel Dario Elg. 17 – Bera Bera 36 (Kad. nesk.)
 Bankoa Elg. 32 – Tolosa 30 (Kad. mut.)
 Aiala 15 – Bacalaos Alkorta Elg. 17 (Inf. nesk.)
 Modeltek Elg. 17 – Ereintza 12 (Inf. nesk.)
 Txarriduna Elg. 18 – Ereintza 17 (Inf. mut.)
 Pneumax Elg. 22 – Usurbil 19 (Inf. nesk.)
 Usurbil 25 – Zubacor Elg. 15 (Inf. mut.)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 18
 10:00 Elgoibar – Ilintxa (Ohorezko inf.)
 12:00 Elgoibar – Eibartarrak (Kad.)
 17:00 Elgoibar – Zumaiako (Ohorezko jub.)
 Domeka, 19
 12:00 Elgoibar – Urola (Jub.)

ESKUBALOIA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 18
 10:00 Zubacor Elg. – Egia (Inf. mut.)
 11:15 Astigarraga Elg. – Eibar (Jub. nesk.)
 16:00 Arilan Elg. – Usurbil (Kad. nesk.)
 17:30 Tecnifuelle Elg. – Usurbil (Jub. nesk.)
 Domeka, 19
 10:00 Bacalaos Alkorta Elg. – Aiala (Inf. nesk.)
 11:30 Salento Elg. – Munttarpe. (Sen. mut.)

ESKUBALOIA (IMH Kiroldegian)

Zapatua, 18
 17:30 Beristain Elg. – Ereintza (Jub. mut.)

LANA.....
Eskaerak

Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ☎ 628 524 420

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxean zein ospitalean. Formazioa eta esperientzia ditut. ☎ 602 161 496

Baserriko lanak edo garbiketarako egiteko eta sukalde laguntzaile moduan aritzeko prest nago. ☎ 617 846 775

Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Titulu eta esperientzia ditut. ☎ 688 639 371

Adinekoak edo umeak zaintzeko, garbiketarako edo zerbitzari lanetarako prest nago. ☎ 649 425 356

Adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 699 535 728

Adinekoak zaintzeko, garbiketarako edo zerbitzari lanetarako prest nago. ☎ 691 500 787

Adinekoak zaintzeko edo garbiketarako lanak egiteko prest nago. Euskalduna naiz. ☎ 626 435 491

Nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest nago. ☎ 632 061 103

Nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest nago. Goizez. ☎ 652 668 877

Adinekoak zaintzeko prest nago, baserrietan ere bai. ☎ 674 687 863

Adinekoak zaintzeko edo zerbitzari lanetarako prest nago. ☎ 634 434 416

Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Erabateko malgutasuna. ☎ 631 714 707

Nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest nago. Orduka. ☎ 629 872 270

Nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest nago. Orduka edo interna. ☎ 688 738 823

Nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest nago. Orduka edo interna. ☎ 688 718 853

Adinekoak edo umeak zaintzeko nituzke. ☎ 602 047 812

Adinekoak zaintzen edo garbiketarako lanetan jardungo nuke. Baserriko lanak ere egiteko prest. Esperientzia daukat. ☎ 631 827 339

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxean zein ospitalean. Gidabaimena dut. ☎ 631 343 232

Adinekoak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko nituzke. Orduka. ☎ 664 357 381

Adinekoak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest nago. Arratsaldez eta gauzez. ☎ 632 898 972

Sukalde laguntzaile edo zerbitzari lanetarako prest. Gustura jardungo nuke baserriko lanetan ere. ☎ 640 312 987

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Garbiketarako lanak ere egiten ditut. ☎ 664 009 315

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Garbiketarako lanak ere egiten ditut. ☎ 631 115 608

Garbiketarako egiteko eta adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 640 312 987

Emakumezkoa eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Arratsaldez edo gauzez. ☎ 646 821 678

Garbiketarako lanetan edo zerbitzari lanetan aritzeko prest. Esperientzia handia. Adinekoak ere zainduko nituzke. Orduka. ☎ 631 363 056

Neska euskalduna umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. 6:00etatik - 11:00etara. ☎ 617 248 087

Umeak zaintzeko prest nago. Arratsaldez. ☎ 606 612 288

Eskaerak

Zerbitzaria behar da Mendaroko taberna batean asteburuetan lan egiteko. ☎ 678 396 522 (Maider)

DBHko eskola partikularrak emateko pertsona behar dut. ☎ 617 386 198

Eibarko jatetxe baterako pertsona euskalduna behar da, jangela eta barrarako. Bidali CV-a iansola@telefonica.net e-postara.

Elgoibarko denda batean lan egiteko neska bat behar da lehenbailehen. Ezinbestekoa da euskaraz hitz egitea. Bidali curriculumak: cvdenda@hotmail.com

ETXEBIZITZAK.....

Hiru gelatako etxea hartuko nuke alokairuan, astebeterako, abenduaren 29tik urtarrilaren 5era. ☎ 629 956 062

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 677 259 560

Etxebizitza alokagai Deban, abendutik uztaile arte. Egoera onean eta ondo kokatua. Oso prezio interesgarria. ☎ 669 339 529

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 626 329 979

BESTELAKOAK.....

Identifikazio txapa galdu dut. Alde batean C.R. inizialak ditu, eta beste aldean nire datuak. ☎ 659 254 343

Hankan eraztuna duen txori txiki bat agertu da Ibartxiki baserrian. ☎ 943 740 201

Gazteentzako logela salgai, osorik edo zatika. ☎ 943 742 596 - 659 539 862

Ene Bada dendako poltsa bat ahaztu nuen zapatuan Ubitarte inguruko banko batean, errota erosi berriekin. ☎ 679 703 248

Mendiko bizikleta salgai, ez dudalako erabiltzen. ☎ 660 933 887

administradores
Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzko Errepublikako Enpresen Administrazioaren Erakunde Nazionala



**ROSA M^a
PINTADO**

Etaldeen Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure eraikinean, azkeneko etxebizitzetakoek dute terrazaz gozatzeko eskubidea, baina eskrituretako klausula batek dio terraza garbitzea eta haren ohiko mantenua etxe-jabe horiei dagokiela, baina aldiz, ezohiko mantenuaren ardurak komunitatearena dela. Hamar urtean, gainerakook ez dugu garbiketarako lanak egin han, ulertzen genuelako ohiko mantenuaren barruan sartzen zen kontua zela hori ere. Etxe-jabe berri bat sartu da, baina, orain komunitatean, eta terrazako hustubideak garbitzeko eskatu du. Jakin nahiko nuke etxe-jabe horri dagokion egiteko hori, edo berak esan bezala, komunitateari dagokion kontu bat den, terrazaren jabea berez komunitatea delako.

Nire iritziz, estatutueto klausuletan ohiko mantenu gisa agertzen dena terrazaren ohiko erabilerarekin lotzen dena da, eta hor sartzen da hustubideak garbitzea (denborarekin hor pilatzen diren hosto eta zikinkeriak garbitzea). Orokorrean, hustubideak garbitzea etxe-jabearen egitekoa da, eta ez komunitatearena. Beraz, etxe-jabea izango da hustubideak behar bezain garbi ez izateak eragindako kalteen erantzule, eta baita, jakina, terrazaren erabilerari lotutako gastu eta konponketei erantzun behar diena ere.

AHOLKUA: Eraikinaren egitura-elementuetan izandako akatsei lotutako gastuak, filtrazioak izaten direnetan tela asfaltikoa edo iragaizte-tela aldatzea adibidez, ezohiko kontutzat hartzen dira, eta beraz komunitateak erantzun beharko die gastu horiei.




Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Danel**, gaur 2 urte egin dituzulako. Muxu potolo bat etxekoan partez.



Zorionak, **Ibon**, azaroaren 14an 6 urte bete zenuelako. Muxu handi bat etxekoan eta, bereziki, Laidaren partez.



Zorionak, **Lea**, igandean 5 urte igandean 5 urte bete dituzulako. Muxu handi bat familiakoan partez, *bitxito*.



Zorionak etxeko pispirinari!!!! Astelehenean 9 urte!!! Muxu potolo bat etxeko guztien partez.



Zorionak, **Beñat eta Unai**, etxeko guztien partez. Muxu handi bana.



Zorionak! Egun zoragarria pasatu genuen, **Marisol eta Isaac**, zuen urrezko ezteietan. Eskerrik asko, eta segi horrela.

Erretratu bakarrekogurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrekogurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 -1 Tel: 943 741 189

**Jarri ezazu zure publizitatea
BARREne astekarian edo
www.barren.eus webgunean
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus**

943 744 112



BARREN

Kalebarren plaza, 2
20870 ELGOIBAR



Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359

www.uzurioptika.com

ERRETINOGRAFO MAKINA BERRIA!



- Erretinopatia diabetikoa
- Makularen endekapena
- Erretinopatia hipertentsiboa
- Glaukoma

Begiko gaisotasun garrantzitsuen prebentzioa.
Txanda hartu eta azterketa sakona egingo dizugu.

17 BARIXAKUA

17:30 Kiribil. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Maalako parkean.

18:00 Erakusketa: Irrati-emisora eta beste gailu batzuk. GARE irratizaleen 25. urteurrenaren harira, Kultur Etxeko erakusketa gelan, domekara arte.

20:30 Aurrez grabatutako opera emaldia: *La Boheme*. Herriko Antzokian. Sarrerak Kutxabank bidez edo zapatuetan Herriko Antzokiko lehiatilan, 19:15etik 21:45era.

18 ZAPATUA

11:00 Karakateko Igoera. Morkaikok antolatuta, Kalegoen plazan hasiko da.

11:00 Ikastaroa: *Zure kodeplug-a programatu. Brandmeister sarearen erabilera aurreratua*. GARE Iratizaleek antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

17:30 Hitzaldia: *Irrati digitala, irratizale analogikoentzat*. GARE Iratizaleek antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

19 DOMEKA

11:00 Hitzaldia: *Irratia eta mendia: zaretasunak bateratzen*. GARE Iratizaleek antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

16:30 Familia-antzerkia. *Kontukantari*. Herriko Antzokian.

20 ASTELEHENA

18:30 Elgoibarren Bizikidetza Lantzen. Bizikidetzarako herritarren taldeak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

19:00 Santa Zezilia kontzertua eta diploma banaketa, Musika Eskolako auditoriumean.

21 MARTITZENA

19:00 Santa Zezilia ospatzeko ekitaldia, Mendaroko plazan.

22 EGUAZTENA

8:30 Santa Zezilia Eguna dela eta, Ikastolako ikasleak kalejiran joango dira Kalegoen plazatik Ikastolara.

9:15 Jardunaldia: *Emakume nagusiak eta genero indarkeria*. Gizarte eta osasun arloko profesionalentzat, musika eskolako auditoriumean.

18:00 Jardunaldia: *Emakume nagusiak eta genero indarkeria*. Publiko zabalarentzat, musika eskolako auditoriumean.

23 EGUENA

17:00 Jostailuen erakusketa, Kultur Etxeko sotoan. Elgoibarko Izarrak, Ludotekek eta Gaztelekuak antolatuta. 23an eta 24an, arratsalde, eta 25ean, goizez egongo da ikusgai, 11:30etik aurrera.

24 BARIXAKUA

19:30 Bakegileen aurkezpena. Abenduaren 9an presoan alde Parisen egingo den martxaren aurkezpena, Mendaron. Gaztetxean. Segidan, mokadutxo egongo da.

20:00 Sebas Etxaniz preso elgoibartarra aske uzteko eskatzeko elkarretaratzea. Sarek antolatuta, Kalegoen plazan.

21:00 Pintxo-jolas dastaketa. Pintxo jana eta karta eta mahai jokoen saio dinamizatua. Elgoibarko Gaztetxean.

32 ETXEBIZITZA BERRI

UBITARTE GAIN



3 LOGELA

224.000€

 + bez -tik aurrera

Teilatupeko espazioak dituzten **ATIKOAK**

Soto-solairuko espazioetara sarbidea dituzten **BEHE-SOLAIRUAK**

GUZTIAK BARNE



ETXEBIZITZA



ARMAIRUAK



SUKALDEA



PERTSONALIZAZIOA

sukia
Zure etxean zaudu. Estás en tu casa.
www.sukia.com

grupo LAZKANO
www.grupolazkano.com

Ongi etorri! **943 316 586**

Informazio gehiago zure etxerako proiektu berrirako, jarri gure telefonoa deitu!

Zinea (Herriko Antzokian)

'La llamada'

18 zapatua,
19:00 / 22:15
12 domeka, 19:00
13 astelehena, 21:30

'La Cordillera'
(Ongarri zinekluba)

13, eguena, 21:30

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00

17 Barixakua IBAÑEZ
18 Zapatua GARITAONANDIA
19 Domeka GARITAONANDIA
20 Astelehena ETXEBERRIA
21 Martitzena FERNANDEZ
22 Eguaztena YUDEGO
23 Eguena ORUESAGASTI
24 Barixakua BARRENETXEA

GUARDIAK 20:00 - 22:00

Guardia Elgoibartik kanpora de-
nean, asteburuetan izan ezik:
BARRENETXEA (Elgoibar)
Errosario, 26 - 943 741 277

22:00 - 09:00

MANDIOLA (Eibar)
San Agustin, 3 - 943 820 533

* Fernandez: Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9
(Soraluze) Tel.: 943 751 384

Urrian hildakoak

- **Antonia Fernandez Varea**
80 urte, urriak 3
- **Maria Teresa Pedrosa Alvarez De Arcaya**
82 urte, urriak 9
- **Niceto Garate Goyarzun**
94 urte, urriak 10
- **Jose Maria Etxaniz Alkorta**
65 urte, urriak 12

- **Ana Maria Gorostiza Garate**
78 urte, urriak 14
- **Juan Manuel Navarro Fernandez**
83 urte, urriak 16
- **Nicolae Camischi Camischi**
58 urte, urriak 18
- **Jesusa Uriarte Arizmendiarieta**
86 urte, urriak 23

- **Eugenio Gonzalez Larrea**
79 urte, urriak 27
- **Jose Mari Irusta Larrañaga**
70 urte, urriak 27
- **Maria Teresa Lizundia Muguerza**
77 urte, urriak 30
- **Concha Azkue Villar**
96 urte, urriak 31



ETXEBERRIA
EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.



Iñigo Lamelas

Jose Luis Azpillaga



"Garraztasuna da agertzen sarritan gure kantuan. Bizitza garratza zaigu, arantzaz inguratua"

Garraztasuna - Koska

Azken hilabeteetan nire egoera emozionalaren tentsio eta estres mailak gora eta gora egin du nabarmen, eta alerta larriaren ere badagoela esango nuke. Laneko gorabeherak direla, munduko bazter askotako atentatu, gosete eta gerrak direla, Trump dela, eta, batez ere, Kataluniako azken gertakariak direla-eta, emozioak pil-pilean sentitu ditut behin baino gehiagotan. Nola ez sumindu Trumpen kirtenkeriak entzunda? Nola ez haserretu erreferendum eguneko gertakarien aurrean? Nolako zakarkeria eta

basakeria Poliziaren aldetik! Nolako ezintasuna eta lotsa!

Aurrera egingo badugu, ordea, erlaxatu beharra dago, horrelako larritasunak ez du beste ezer egiteko gogorik ematen eta. Zurrunbilo honetatik aldendu beharra dago ezinbestean. Niri musikak laguntzen dit erlaxatzen, baita mendi-buelta bat egiteak edo zinemara joateak ere. Entzuna dut eskoletan ere irakasle batzuek musika lasaigarria jartzen dietela ikasleei aztoratuegi dabiltzanean.

Irudiek-eta badute indar lasaigarria. Tankera horretakoa da Iñigoren argazkia ere, baretu egiten gaituela dirudi. Bakea, harmonia, xumetasuna eta oreka iradokitzen dizkigu. Interneten ere aurki daitezke horrelako ehunka irudi lasaitzaile: hondartza zoragarriak, aintzira xarmagarriak, ur-jausi bikainak eta abar. Iñigoren argazkiaren abantaila: gertutasuna. Gogorarazten digu hemen bertan, urrutira joan gabe ere, horrelako txoko sorgintzaileak aurki ditzakegula, eurekin gozatu eta bake pixka bat lortzeko.

"Irudiek-eta badute indar lasaigarria.

Tankera horretakoa da Iñigoren argazkia ere, baretu egiten gaituela dirudi"



Dolores Dominguez Anglade

2017ko azaroaren 13an hil zen, 87 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Jose Carlos Rodriguez Martinez


2017ko azaroaren 13an hil zen, 61 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



II. URTEURRENA

Dolores Leyaristi San Martin

2015eko azaroaren 23an hil zen, 92 urte zituela. Haren oroimenez
II. urteurreneko meza izango da, eguenean, azaroak 23,
19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.



Beti egongo zara gure artean



Eskertzak eta urteurrenak 943 744 112





PINTXO DASTAKETA



Susana

MERKATU PLAZAN

AZAROAK 24, OSTIRALA
ARRATSALDEKO 18:00ETATIK 20:00ETARA.

Josu Mugerzarenkin

BELAUSTEGI JATETXEKO SUKALDARIA



EUZKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ERAKOZKUNTZA
ENKARGATUEN SAIA
DIPUTAZIEN BILKETA
KONKORDIA ERAKUNDA



Bittor



Amaia



Marian



Sara

DOAN